


## BASQUIÑUELAS-TUESTA

### Por el arroyo Añana hacia el valle del Omecillo



#### Encuadre geográfico

La comarca de valles alaveses nos ofrece la posibilidad de diferentes recorridos por pequeños pueblos semiabandonados. Uno de estos recorridos transcurre por los pueblos de Basquiñuelas, Atega, Bellojín, Villamaderne opcional y Tuesta. Estos pueblos pertenecen a los Ayuntamientos de Ribera Alta, Salinas de Añana y Valdegobia (los tres últimos). El acceso a Basquiñuelas por carretera transcurre paralelo al arroyo Añana, que en algún tramo muestra un profundo barranco y alguna cascada (cuando lleva agua). Este arroyo remontaremos los primeros kilómetros del recorrido.

Basquiñuelas es también el lugar de inicio de excursiones a Canto Blanco (1006 m.), mientras que Arbígano lo sería para subir a la Atalaya (907 m.). También nos permite el recorrido subir a Peñamil (797 m.), paraje singular visto desde la cara Norte.

#### Vegetación y fauna

La vegetación en nuestro recorrido alterna pequeños bosques pinos, de encinas y quejigos con fincas agrícolas. En los fondos de barranco los pinares y quejigales son maduros y hacen muy agradable el camino. En las lomas están más degradados o escasean. Aparecen enebros (enebro de la miera o hegoaldeko ipurua). Debido a la poca presencia humana abundan jabalís y corzos (mucho cuidado los conductores). Son muy visibles en primavera y en verano y pastan tranquilamente en trigales.

#### Puntos de interés

**Basquiñuelas** tiene por patrón a San Ginés y en el templo a él dedicado existe una pila bautismal románica de gran valor artístico con bellos relieves de aves.

En **Atega** la iglesia se encuentra en mal estado y resulta muy lógico apoyar la demanda de los vecinos de que sea arreglada.

La iglesia de San Cornelio y San Ciprián, de **Bellojín** por el contrario recientemente restaurada, es un bellissimo ejemplar del más antiguo románico (primer románico alavés del siglo XII). Bellojín ha sido titulado como el balcón de Valdegobia y ofrece bellos paisajes del valle del Omecillo hasta su desembocadura con el Ebro.

**Villamaderne** tiene su principal atractivo en el templo de San Millán y su magnífica torre que es una espadaña románica de tres cuerpos, airoísima y recientemente restaurada.

Por último, **Tuesta** tiene un magnífico templo dedicado a la Asunción de Ntra. Sra. Es un bellissimo ejemplar del románico con ábside de bellas ventanas, portada monumental con las arquivoltas mejores labradas de la provincia y declarada Monumento arquitectónico de Euskadi.

## RECORRIDO

**0 Km. / 0 h. 0'** Comenzamos el recorrido desde la plaza-era junto a la iglesia de **Basquiñuelas**, en dirección oeste. Nos alejamos del pueblo y en seguida encontramos una pista de todouno color gris. Tomaremos este camino y seguiremos unos metros. En breve se nos presentará a la derecha una pista que asciende, la cual deberemos rechazar. Unos metros más adelante se nos presentará otra pista también a la derecha, que es la que deberemos tomar. En este lugar ya se observa cómo la pista gris que abandonamos toma un empinado camino de ascenso. Por el contrario, la nuestra nos conduce a una alambrada. Cruzada la alambrada nos aparecen de nuevo dos posibilidades; tomaremos el camino de la izquierda junto a la alambrada. Tras ascender un poco desciende hasta acercarse nuevamente al arroyo Añana.

**1 Km. / 0 h. 20'** Llegamos a una verja metálica. Deberemos cruzarla y tras escasos cuatro pasos cruzar a la izquierda una nueva alambrada. Esta senda nos conduce a una camino que seguiremos durante otro kilómetro hasta ascender Barranco Valdelasierra. Es una cómoda y ancha pista sombreada por un maduro pinar con abundantes quejigos y encinas. Debemos rechazar los caminos empinados y cortafuegos que se nos abren a izquierda y derecha, cruzar también una nueva alambrada y seguir por el camino principal. En determinado momento el camino se desdobra y giraremos a la izquierda, por donde hay menor pendiente. Ascendemos un poco y la pendiente se relaja. Aparecen varios caminos menores a nuestra izquierda, pero continuaremos por la pista principal.

**2 Km. / 50'** El camino gira hacia la izquierda y asciende bruscamente. Se trata de una rampa de 200 metros, y que tras un giro de nuevo a la izquierda culmina en una loma donde nos cruzamos con el camino que asciende a Canto Blanco, y que tiene un objeto blanquirrojo que lo señala. Nosotros comenzaremos derechos el descenso. Llegaremos a un nuevo cruce (hay una especie de puerto, o zona lisa con el suelo embarrado) donde tenemos que girar a la izquierda en descenso fuerte. Finalmente llegaremos a una verja roja que deberemos traspasar.

**3,5 Km. / 1 h. 10'** Cruzada la verja tenemos tres caminos posibles; tomaremos el de la derecha, que va descendiendo y nos lleva a la valla metálica inicio del camino de ascenso a Peñamil. Nosotros torceremos en ese punto hacia la izquierda sin cruzarla para continuar por la pista. El camino, es inicialmente abierto, aunque luego se interna en un hermoso pinar natural. Ya sin pérdida, descenderemos a **ATIEGA**.

**5,5 Km. / 2 h.** Desde **Atiega** seguimos rectos por la carretera hacia el sur y giraremos a la derecha por la primera pista. El camino a **Bellojín** no tiene pérdida, al menos si rechazamos los caminos menores que salen a nuestra izquierda.


**7,5 Km. / 2 h. 40'** En **Bellojin** tras visitar la iglesia de San Ciprián y San Cornelio descendemos por la pista herbosa que nos conduce a la carretera y podemos:

- A) Descender por carretera hasta **Villamaderne** y posteriormente por una parcelaria desplazarnos a **TUESTA**.
- B) Caminar unos metros atrás por la carretera y coger la pista que desciende por la izquierda. Esta desemboca en otra, que deberemos seguir hacia la izquierda. En la pequeña loma tomamos la pista que va derecha a **TUESTA**

**10 Km.-11,5 / 3h 15'-3h 45'** Visita obligada a la iglesia de **TUESTA**.

## BASKONGELAS- TOSTA

### Añana errekatik zehar Omecillo bailarantz



#### **Kokapena**

Arabako Bailarak eskualdeak herri sasi abandonatu txiki asko ditu eta horietatik zehar ibiltzea oso atsegina izaten da. Baskongelas, Atiega, Belloxin, Villamaderne (aukeran) eta Tosta herrietatik doana oso interesgarria da. Herri hauek Erribera Goitia, Añana Gesaltza eta azken hirurak Gobiako udalerrietan daude. Baskongelaserako errepidea Añana errekaaren paraleloan doa, toki batean ubidea sakana bihurtzen da eta urjauzia du (urak daramatzanean). Ibilbideko lehenengo kilometroetan jarraituko dugu erreka hau. Baskongelas ere Canto Blanco (1006 m.) mendirako txangoen hasiera puntua da; Atalaya (907 m.) mendira igotzeko puntua Arbigano delarik. Peñamil (797 m.) ere igo dezakegu. Hau, baso nahasi batek inguratzen duen mendixka ikusgarria dugu, batez ere Ipar aldetik ikusita.

#### **Landaretza eta fauna**

Gure ibilbideko landaretzak pinudi txikiak, arteak eta erkametzak tartekatzen dituztenak, eta baita ere nekazaritza lurak osatzen dute. Menditarteen sakonetan pinudiak helduak eta handiak dira. Muinoetan beren egoera kaskarragoa da. Tarteka hego-ipurua agertzen da. Giza eragina txikia dela eta basurdeak eta orkatzak ugariak dira. Udaberrian eta udan oso erraz ikus ditzakegu garitzetan lasaiki bazkatzen.

#### **Interes tokiak**

Baskongelas herriak San Gines du patroia eta bere omenezko elizan balio handiko batailo harri erromanikoa dago; hegazti erliebe landuak dituena.

Atiegan eliza oso egoera txarrean dago; Atiegatarren konpontzeko aldarrikapena laguntzeak logikoa dirudi.

Belloxingo San Cornelio eta San Ciprian eliza, aldiz, duela gutxi konponduta izan da. XII. mendeko lehenengo erromaniko arabarraren eredu paregabea da. Belloxin Gobiako balkoia da eta Omecillo bailararen ikuspegi zabala eskeintzen digu, Villamadernetik Eborraino.

Villamadernek ikusteko eraikuntzarik bitxiena San Millan eliza du. Elizaren dorrea hiru gorputzeko espadaña erromanikoa da, oso arina eta duela gutxi txukunduta.

Azkenik, Tostak Gure Andra Mariren Jasokundearen (Asunción de Ntra. Sra.) omenezko eliza dotore eta ikusgarria du; erromanikoa, leiho ederrak dituen absidea duena, atari monumentala (lurralde honetako hoberen landutako arkiboltak dituena) eta Euskadiko Monumentua.

## IBILBIDEA

**0 Km. / 0 or. 0'** **Baskongelasko** elizaren ondoko larrain-plazatik hasiko dugu ibilbidea, mendebaldeko norabidea hartuz. Etxeak atzean utzi eta berehala legarrezko pista grisa aurkituko dugu. Bide hau hartuko dugu eta metro batzuz jarraituko dugu. Aurki eskubitara gorantza hartzen duen beste pista bat agertuko zaigu, baztertu beharrekoa. Metro batzuk aurrerago eskubitara beste pista bat agertuko zaigu, eta hau bai, hartuko dugu. Uzten dugun pista grisaren aldapaz ohartuko gara. Gureak aldiz, aldapa laburra du eta alambrada gurutzatutakoan lautu eta beherantz egiten duen aukera jarraituko dugu. Pixka bat jaitsi ondoren berriro Añana erreka alora iritsiko gara.

**1 Km. / 20'** Metalezko hesira iritsiko gara. Gurutzatu behar dugu eta lau urrats eskas egin eta gero ezkerreko alanbre hesia zeharkatu berriro. Bide honek Valdelasierra menditartetik zehar mendira igotzen duen pistan utziko gaitu. Menditartetik jarraituko dugu; bide zabala eta eroso da erkametz eta arte zipriztinak dituen pinudi heldu batek itzalpetzen duena. Eskubitara eta ezkerretara agertzen zaizkigun bide malkartsuak eta suebaki pistak baztertu behar ditugu. Alambrada bat berriro gurutzatuz, aurrera bide nagusitik jarraituko dugu. Toki batean erdibitzen da eta ezkerretara egingo dugu, aldapa txikiagoa den tokitik. Pixka bat igo eta eta aldapa moteltzen da. Ezkerretara bide estuagoak agertuko zaizkigu, baina pista nagusitik jarraituko dugu.

**2 Km. / 50'** Bideak ezkerretara egiten du eta zakarki gorantza hartzen du. 200 metrotako aldapa da eta ezkerretara berriro egin ondoren muino batera ailegatuko gara. Hemen Canto Blanco edo ondoko mendirako bidearekin egiten dugu topo, lurrian marka zurigorri batek adierazten duena. Gu beherantz joango gara. Bidegurutze batean, erremolatxa-kai baten antzeko eremu lau eta zapaldua dago, ezkerretera egingo dugu jeitsiera fuerte batean. Azkenik burdin hesi gorri batera iritsiko gara.

**3,5 Km. / 1 or. 10'** Hesia gurutzatutakoan hiru aukera dugu; eskubitakoa hartuko dugu. Beherantz doa eta Peñamil mendirako igoerari hasiera ematen dion burdin hesira iritsiko gara. Guk zeharkatu gabe ezkerretara egingo dugu, pistatik. Bidea, hasieran zabala, pinudi eder eta naturalean barneratzen da. Galtzerik gabe **ATIEGA**ra iritsiko gara.

**5,5 Km. / 2 or.** **ATIEGA**tik errepidetik zuzen hegoalderantz jarraituz eskubitarako lehenengo pista hartuko dugu. **BELLOJIN**erako bidea erraza da, horretarako gure ezkerretara agertzen diren bideadarrak alde batera utzi behar ditugu.

**7,5 Km. / 2 or. 40'** **BELLOJIN**en San Ciprián eta San Cornelio eliza bisitatu behar dugu. Gero bide belartsutik errepidera jaitsi eta bietako bat hartu:

- a) **VILLAMADERNE**raino errepidetik jeitsi eta han **TOSTA**ko partzelaria hartu.
- b) Errepidetik metro batzuk atzera egin eta ezkerretatik jeisten den pista hartu. Beste batekin bat egiten du eta ezkerretatik jarraituko dugu. Muinoan **TOSTA**ra doan pista zuzena hartuko dugu.

**10 Km.-11,5 / 3or 15'-3or 45'** **TOSTA**ko elizara derrigorrezko bisitaldia.